



KIROLA  
GOZATU  
BIZI



# JOLAS HEZI

2020-21

**Kirol aniztasuna**



# UROLAKO ESKOLA KIROLA DEKALOGOAK



KIROLA  
GOZATU  
BIZI



## KIROLARI ONAREN DEKALOGOA

1. Kirola aisia da.
2. Denok gara garrantzitsuak.
3. Arauak bete egin behar dira.
4. Entrenatzaileak errespetatu behar ditut.
5. Nire aurkariak errespetatu behar ditut.
6. Epailearen irudia errespetatu behar dut.
7. Animoak eman ditzaket, inoiz ez iraindu.
8. Nire familiak eredu izan behar du.
9. Galtzen bai, baina baita irabazten ere jakin behar dut.
10. Nire goiburua garbi jokatzeari da.

## HEZITZAILE ONAREN DEKALOGOA

1. Gogoratu, kirola aisia dela.
2. Umeak jolastu, ondo pasa eta ikasi egin behar dutela.
3. Umeek jarrera desegokiak baldin badituzte, saiatu bideratzen edo zuzentzen.
4. Emaitzak ez dira garrantzitsuena; baloratu eta azpimarratu talde lana, zenbat ikasi duten, zenbat hobetu diren....
5. Modu egokian hitz egin, ez iraindu, keinu zatarrak saihestu. Animatu!!!
6. Errespetatu epaileak, aurkariak eta jokalaria. Umeentzat eredu zara.
7. Joko garbia erakutsi eta bultzatu.
8. Umeei galtzen erakutsi baina baita ere irabazten.
9. Ez ezazu sekula indarkeria justifikatu.
10. Arazoen aurrean norbera saiatu bideratzen eta ezin bada koordinatzailearengana zuzendu.

## IKUSLE ONAREN DEKALOGOA

1. Ez zara entrenatzailea, talde bakoitzak bere arduraduna du eta bere funtzioa errespetatu.
2. Errespetu guztiz jokatu.
3. Ez iraindu, ez errietarik egin. Denak berdin animatu!!!
4. Utzi libreki disfruta dezaten.
5. Jolasten eta ongi pasatzen ari dira.
6. Emaitza ez da garrantzitsuena.
7. Zure seme-alabentzako eredu izan.
8. Errespetatu ezazu epailea.
9. Ez ezazu sekula indarkeria justifikatu.
10. Zure goiburua "joko garbia" da.

## ENTRENAMENDUEN ANTOLAKETA

LH 2 A: Osteguna 17:10 – 18:10

Hezitzailea: Luken Galarraga

- LH 2 B: Osteguna 18:15 – 19:15

## GOGORATU !!!!

- **Ikaslearen izen ematearekin:** Ikastolako aretoan izango den astean zeharreko entrenamenduak soilik izango da.
- Bailerako eskola kiroleko Protokoloa ikastolako web orrian zintzilikaturik egongo da denon eskuragarri.
- Ikasturte berezi honetan geletako burbuilak mantendu behar ditugunez, horrek aurreko urteetako antolaketa modua ezinezkoa egiten digu (saioretan gelak nahastea). Hori horrela, aurten gela bakoitzari ordutegi bat izendatu zaio eta taldeen ordutegia zein den zehazteko zozketa bidez egin dugu.
- Gaur egungo egoera berezi honetan, ikaslearen familiari arduraz jokatzeari eskatzen zaio bere seme-alabak sintomaren bat badu lehenbailehen komunikatu dezan, dagokion protokoloa martxan jar ahal izateko.

Jolas Hezi programan parte hartu ahal izateko **DERRIGORREZKOA** izango da behean dagoen izen emate orriaz gain Eusko Jaurlaritzak ezinbestekotzat jotzen duen dokumentua beteta ekartzea (**IV. ERANSKINA**). Bera gabe ezingo du parte hartu ikasleak.



## EMAN IZENA ESKOLA KIROLEAN

Izen abizenak: \_\_\_\_\_

Maila: LH-2 Gela: \_\_\_\_\_

Oharra: Zuen seme-alabak parte hartu nahi badu, arren eskatzen zaizu konfirmatu dezazun.

Parte hartuko du eskola kirolean

**Izen emate epea: Urriak 22**

Gurasoaren sinadura